

IGANTZIKO INAUTEAK



ZUMARBEL
creaciones metálicas
Igantzi (Navarra)
948 63 74 11



Lehen A.T.M. S.A
Berrizaun 25,
31790 IGANTZI
T. 948 63 74 11
@zumarbeld@hotmail.com
www.zumarbeld.es



Egitaraua



IGANTZIKO UDALAK
inauteri zoriotsuak
opa dizkizue igantziar
eta bisitari guztiei



Otsailak 21, ortziralea

10:00etan ezkila jotzea eta altxaferoa. **Egun osoan** mozorroak etxez etxe eskean ibiliko dira, musikariaren laguntzarekin. **17:00etan** haurrentzako jokoak fontoian. **Ondotik**, Txoborro magoaren *Gezur gehiegi* ikuskizuna. **Gero**, merienda Guraso Elkartearen eskutik. **Arratsean** eskean aritu direnen afaria Biltokin.

Otsailak 22, larunbata

08:00etan hasita mozorroak etxez etxe eskean eta musika jotzen ariko

dira. **Eguerdian** bazkari irekia egingen dute Biltokin. **14:00etan** Baratzondo elkarteko bazkaria. **Arratsaldean** Guraso Elkarteak antolatuta DJ Infernuren eskutik musika. **Ilunabarrean** pintxoak Estankoan. **Ondotik** bildutakoaren zozketa, eta eguna bukatzeko Biltokin afaria.

Otsailak 27, ortzeguna

Goizean mozorroak soinean jantzi eta neska-mutikoak etxez etxe ibiliko dira eskean. **Arratsaldean** bildutako puskekin merienda egingen dute Biltokin.



EROSI ONLINE
www.lamascara.es

LA MASCARA
Inauterietako mozorroetan den-dena daukagu
Era guztietako osagarrien salmenta
Makillaje profesionala

www.lamascara.es
mascara@lamascara.es
Abejeras, 6 | IRUÑEA | T./F. 948 25 00 04



ETXALARKO INAUTEAK



Egitaraua

Otsailak 27, ortzeguna

Goizean gaztetoak etxez etxe ibiliko dira eskean *urtzain gizen* kantatuz. **14:30ean** ikasleen desfilea eta ikusizunak, eskolatik plazara. **Ondotik** haurrentzako merienda Guraso Elkartearen eskutik.

Martxoak 2, igandea,

Zaldun inaute eguna, kinto bazkariak eguerdian.

Martxoak 3, astelehena

08:00etan gazteak La Basque jatetxean elkartu, gosaldu eta baserrietara abiatuko dira etxez etxe eskean ibiltzeko musikaz lagunduak.

Martxoak 4, asteartea

12:00etan karrozen eta mozorroen desfilea. **Ondotik** gazteek bazkaria egingen dute La Basquen. **14:00etan** jubilatuen bazkaria Larraburuan.





OSTATU - JATETXEA
Etxeko sukaldaritza
kalitatezko produktua

T. 948 39 79 59 - Andutzeta,15 - ETXALAR



HERRIKO OKINDEGIA

Euskal Herriko gari mota zaharrak gure errotan ehotuak

- ! Espelta Handia
- ! Espelta Titkia
- ! Florencio Aurora
- ! ARAGON 08
- ! Lakaingo bizarduna

06:00 - 13:00
EGUNERO IREKIA
Tif. 627 03 39 75





ETXALARKO UDALAK

*inauteri onak opa dizkizue
etxalartar eta bisitari guztiei*

BERAKO INAUTEAK


**AINHOA
ALTZUGUREN MITXELENA**
 A B O K A T U A
 Dibortzioak | Kontratuak | Arazo administratiboak
 BERA | M. 630 972 189 | ainhoaaltzuguren@gmail.com


3. Estankoa
ongi pasa inauteriak!
 San Esteban, 11
 BERA · T. 948 63 16 37


 Denda. 948 631 217
 T. 630 136 863
 Julio Caro Baroja, 6 - BERA
 jaurenbera@gmail.com
 Elektrizitate lanak orokorrean
 Erreformak, etxe berriak
 Lantegietako mantentze-lanak
 Eguzki-panelen instalazioa
 eta dirulaguntzen gestioa
Ongi pasa inauteriak!

**Ansoenea
BERA**
MUS TXAPELKETA
 Otsailaren 7tik
 maiatzaren 30era
 ortziraletan 22:00etan
 *apirilaren 18an izan ezik



E D A R I A K

MANUEL TABERNA S.L.
 📍 Bidasoa, 76 - 31780 BERA
 📞 948 63 10 27 📠 670 598 560
 @ info@tabernaedariak.eus
 🌐 www.tabernaedariak.eus



Egitaraua

Otsailak 22, larunbata

19:00etatik aitzinera kaldereroen desfilea Illekueta auzotik Herriko Etxeko plazaraino.

Otsailak 26, asteazkena

18:00etan Isidoro Fagoaga Musika eskolako ikasleen kontzertua Kultur Etxean. Aitzinetik, karrikabuelta.

Otsailak 27, ortzeguna

Goizean haurren zingar arroltze eskea herrian barna. 15:45ean hasita, 3 eta 12 urte bitarteko ikasleen Inudeen eta Artzainen desfilea eta karrozak suhitzalileen parketik hasita Eztegarra pilotalekuraino.



Ondotik, parte hartzaileendako merienda Eztegarra pilotalekuan.

Martxoak 1, igandea

10:00etatik aitzinera Inudeen eta Artzainen desfilea herrian barna. Eztegarra pilotalekutik hasita. 14:00etan bazkaria. 18:00etan Inudeen eta Artzainen desfilea Eztegarra pasealekuan hasita.

Martxoak 2, astelehena

Goizean zingar arroltze eskea base-rrietan. Egun osoan mozorroak herrian barna. 18:00etan hasita Bide Batez taldearekin erromeria Toki Onako estalpean.



«Inauteek duten anarkia puntu hori aunitz gustatzen zait»

DANI IRAZOKI BERTIZ BERAKO INAUTEZALEA



«Beratar saltseroa». Halaxe deskribatu du bere burua Dani Irazoki beratarrak. Herriko kontuetan saltsan ibiltzea gustatzen zaio, eta inautetan ere karrika izanen da mozorroa soinean giroaz gozaten.

Haurra zeneko inautean oroitzapen politak ditu Irazokik, nahiz eta ez zuten gurasoekin mozorrotzeko ohiturarik izaten. Hala ere, gogoan du karrikan ibiltzen zirela. Oroitzapen horiek, gainera, bereziak dira, herriko bestak baino aunitzez ere gehiago bizitzen baitzituzten inauteak. «Familiako benta dugu Larhongo tontorrean eta uda parteko besta horiek ez dugu bizitzerik izan», kontatu du. Abuztu hasieran izaten dira Berako bestak, Larhunen justuki jende gehien dabilen eta lan gehien egin behar izaten den denboraldian. Hori horrela izaki, «inauteak badira bereziki bizitzen ahal ditudan bestak».

Aspaldikoa du inauteekiko maitasuna, baina, azken urteetan haunditu egin zaio mozorrotzeko grina. «Antzerkigintzan aritzen da Itzi nire bikotekidea, badu horretarako joera eta orain gehiago gustatzen zait» azaldu du. Gainera, mozorro bat soinean janztea baina gehiago da beretzat mozorrotzea: «Orokorrean bizitzan nahiko mozorrotuak bizi

gara, eta jendeak mozorro bat jartzen duenean erakusten du nolako den. Inauteen alde hori aunitz gustatzen zait».

Inauteak barrenetik bizitzea

Bizitza bezala, denboraren joanarekin ere aldatu egin da Irazokik inauteak bizitzeko duen manera. Hala ere, bada ahal duela hutsik egiten ez duen ekitaldi bat: Inudeen eta artzainen desfilea. «Ahal bada, gustatzen zait dantzari ateratzea. Anarkia puntu bat da, eta nahiz eta koreografia bat duen dantza izan, nahiko askea da». Momentu bereziak izaten dira dantzan aritzen direnak, bere ustetan jendeak «aunitz bizitzen dituelako». «Barrenean egotea hagitx-hagitx polita da eta probatzen duenak errepikatu egiten du».

Urte aunitz eman zituen Inude eta Artzainetan atera gabe, eta duela bi urte atera zen berriz ere, «eta uste

«MOZORROTZEA PERTSONAIA BAT ZEUREGANATZEA DA»



MARITX
Ingeniaritza elektrikoa | Industria buletina
Proiektu elektrikoak | Instalazio elektrikoak
636 617 450 | Legia, 23 BERA

ERREKALDE O S T A T U A
Ongi pasa inauteriak!
PLATER KONBINATUAK
PINTXOAK
BOKATAK
T. 948 630 259
BERA

KATEA BIKE
BIZIKLETEN SALMENTA ETA KONPONKETA
ARROPA ETA OSAGARRIEN GUNE BERRIA
Kanttonberri, 1, BERA | T. 948 631 218 | joxemi@kateabike.com
www.kateabike.com
BERGAMONT BH METEORA PINARELLO ORBEA MONTY GOBIK

669 122 815 | Ongi pasa inauteriak!
javieribarra@barraeraikuntzak.eus
JAVIER IBARRA ERAIKUNTZAK
Etxebizitza berriak | Zaharberritzeak
Erreformak | Konponketak
Teilatuak | Harri eta hormigoi lanak
Mota guztietako igeltseritza lanak
GREMIOEN KOORDINAZIOA - SUNBILLA (NAFARROA)

BERAKO INAUTEAK



Zalain Auzoa BERA t. 948 630 967 w. www.zalain.info



EGUNEKO MENUA
SAGARDOTEGI
MENUA
KARTA
OGITARTEKOAK
PLATER
KONBINATUAK

zubiondojatetxea.com | T. 948 625 472 | Alasta karrika, BERA



Alberto RETEGI
abokatua

© 948 630 763 · Altzate, 17 · BERA



BERRI S.L.
TXIMISTINDAR
INSTALAZIO ELEKTRIKOAK

Ongi pasa inauterriak! 948 63 14 52 / 639 60 80 34 / 639 56 59 65

Zalain Ind., 42 Bera



Ongi pasa inauterriak!

DESIN BERA

DESINSEKTAZIOAK · ARRATOI-HILTZEAK ·
EGUR TRATAMENDUAK
DESINFEKZIOAK · HEGAZTIEN KONTROLA

T. 948 625 597 · Zalain, 42 B · BERA



ONGI PASA INAUTERIARI!
Illekueta 11 BERA
T. 848 477 135



dut zaharrena nintzela». Gainera, bere irudikoz, urtetik urtera parte hartzaileagoak dira Inudeak eta Artzainak eta kontent da horrekin: «hain korrektoak garen mundu honetan karrika moztzen da, ehun eta piko lagun dantzan... hagitz polita da».

Transmisioarekin «kontent»

Azken urteetan dantzan atera bada ere, aurten alabaren zaintza lanak tarteko, ikusle gisa biziko du inautetako igandea. Kontent da hala ere, etxeok aterako baitira dantzan: «Nire bikotekidearen alaba lehen-dabizikoz aterako da, eta transmisio hori egitea polita da». Bikotekidearen seme-alabak azkoitiarrak dira sortzez, eta beratarrentzat hain seinalatua den egun horretan parte hartzeko gogoia izatea «herriaren parte sentitzeko modua da», bere ustetan. «Gutieneko adin bat behar izaten da Inude eta Artzainetan ateratzeko, eta azken urteetan kristoren gogoe-kin ikusten zuen desfilea baina ez zuen ateratzeko adinik. Aurten bai, bera aterako da».

Astelehenean mozorroa soinean

Igandeko dantzen ondotik, astelehenean mozorroen txanda izaten da Beran, eta hor ere ez du hutsik eginen Irazokik. «Kuadrillan ateratzen gara, aperitiboaren ordurako, eta bazkaria egiten dugu». Kuadrillan mozorrotzeko tematika bat aukeratzen dute, eta bakoitzak eramaten du bere estilora mozorroa, eta hori «aski polita» iruditzen zaio: «Mozorrotzea niretzat ez da uniforme bat jantzea, pertsonaia bat zeureganatzea da, eta bakoitzak bere gisara egiten du». Egundorretan sorpresa politikak hartu ohi dituzte, «elkar ikustean harri-

tzen gara bertzea nola jantzi den ikusita eta polita izaten da».

Inauteen bueltan egun aski ederrak pasatuak ditu, eta mozorro aunitz ditu burutan, baina bereziki gogoan du ijitoz atera zirenekoa: «Batzuk lehengo ijitoz atera ziren, bertze batzuk oraingoz, aunitz gustatu zitezaidan». Aurtengorako ere, oraindik deus erabaki ez badute, hasiak dira elkar zirikatzen, baina badaki bakoitzak mozorroa «bere aldera» eramaten duela eta ederki pasako duela.

Inauteak bizitzeko modua

Berako inauteez aparte, Euskal Herrian inauteak bizitzeko dagoen modua aunitz gustatzen zaio Irazokiri: «Toki aunitzetan desfile gisakoak izaten dira, jendea guapo jantzen da horretarako, eta Euskal Herrian ez da horrela izaten. Aunitz gustatzen zait anarkia hori eta herria inauteak okupatzea». Gainera, bereziki gustuko du jendeak zer nolakoa lana hartzen duen karrozak egiten, eta bere ustetan inauteetan lortzen da «24 orduz bada ere, karrika askea izatea».

Eta inauteak pasatuta zer? Bestondoa gainetik kentzeko badaki zein den sekretua: «Goizeko zortzietan jaikitzen den hiru urteko haur bat, zaplazteko bat ematen dizu horrek», dio barre artean. Beran ateratzen denak ziur ikusiko duela Irazoki herriaz eta «anarkiaz» gozatzen.

«POLITA DA INAUTEEN TRASMISIOA EGITEA»



INAUTERIETAN,
ARDURATIK ETA ERRESPECTUTIK
DISFRUTATU ETA GOZATU

LESAKAKO INAUTEAK



Egitaraua

Otsailak 27, Ortzegun Gizen

Goizean haurrak Arroltze-arroltze ibiliko dira.

Martxoak 2, Igandea

17:00tan Zakuzahar ttikien kalejira herriko pilotalekutik abiatuta, Lesaka Trikitixa Taldeak lagunduta. 18:00etan dantzaldia Plaza Zaharrean ITZAR erromeria taldearekin. 19:00etan Zakuzaharrak herriko pilotalekutik abiatuko dira Lesakako Musika Bandak lagunduta. Goitarrak: goizean Auzoberri, Endara, Zala, Katazpegi eta Nabaz auzoetan barna baserriz baserri ibiliko dira eskean eta dantzan. Ilunbarrean herrian ibiliko dira.

Martxoak 3, Astelehena

Eguerdi aldean mozorroak eta karrizak ibiliko dira herrian barna. 18:00etan dantzaldia Plaza Zaharrean Imanol Intxausti eta Iñigo Larrañagarekin. Fraindarrak, goizean Otsango eta Frain auzoetan barna baserriz baserri ibiliko dira eskean. Eguerdi aldera herrian barna eginen dute eskea.

Martxoak 4, Asteartea

Fraindarrak, goizean, Izotzaldea auzoan barna baserriz baserri ibiliko dira eskean. Arratsaldean herrian barna eginen dituzte harat-honatak.

IZARRA OKINDEGIA
ongi pasa inauteriak!
PLAZA ZAHARRA 12-13 31770 LESAKA NAFARROA
TEL: 948 637 855

ARRANO ostatua
Albistur 13, Lesaka. 948 627 597
KROKETAK, PINTXOAK, BOKATAK,
ENTSALADAK, PLATER KOMBINATUAK
eta giro bikaina
PRESO TA INESLARIAK ETXERA!

LINDDURRENBORDA SAGARDOTEGIA
Txotx denboraldia irekia!
Ortzegunetik igandera irekita,
eguerditik aitzinera.
Egin erreserba!
NABAZ AUZOA LESAKA (NAFARROA)
TEL. 948 63 72 12

Antoiu
OSTATUA
07:00etatik aitzinera irekia.
PINTXOAK
BOKATAK
PLATERAK
Ongi pasa Inauteriak!
Antoiu, 17-LESAKA | 948 63 73 93 - 631 02 79 50

LIDERA
HORTZ KLINIKA - ESTUDIO DENTAL
INGURUNE BERRIA
ZURE IRRIARENTZAT
Ortodontzia eta odontopediatria,
odontologia orokorra, endodontzia,
implanteak, errehabilitazio protesikoa,
hortzetako estetika, eta abar.
Al-Orr: 08:00-13:00 | 15:00-20:00
Larunbatetan irekia: 08:00-13:00
Iturrunzubiko pl. 9-10 LESAKA | T. 722 662 478
lidera@hortzklínika.es | @liderahortzklínika

XAGU LIBURUDENDA
Tel. / Fax 948 638 232
Koskontako bidea, 7
(osasun-zentroaren parean)
31770 LESAKA
PAKETEAK JASOTZEKO GUNEA
LIBURUDENDA
KOLORETAKO FOTOKOPIAK
USBUR EGINDAKO INPRIMAKETAK
ESKANERRAK
ESKOLA MATERIALA
INFORMATIKAKO MATERIALA
BULEGORAKO MATERIALA
EGUNKARIAK, ALDIZKARIAK

IÑAKI JANARIDENDA
ONGI PASA INAUTERIAK



Arretxea, 12 • LESAKA • 948 638 287

Cofee - Pastelería - Bar
Bittiria



**PINTXOAK | HANBURGESAK
PIZZAK | KEBAB | DURUM**

☎ 948 495 792 📞 631 837 959
Bittiria 22, LESAKA

ZOANSA



Ongi pasa inauteriak!



MARKA GUZTIEN KONPONKETA
MEKANIKA • ELEKTRIZITATEA • TXAPA • PINTURA
Tel.: 948 62 55 55 • Fax: 948 62 55 05
e-mail: zoansa@zoansa.com
Banarta, 2 • Alkaiaga Ind. • 31789 LESAKA (Nafarroa)

KASINO
OSTATUA - RESTAURANTE



ongi pasa inauteriak

**Plaza Zaharra • 948 63 72 87
LESAKA**

«Ez dago zakuzaharrik mairurik gabe, biak ezinbertzekoak dira»

AINARA ETXABIDE SAGARZAZU LESAKAKO INAUTEZALEA

Inautezalea izanik, egitaraua bete-betea izaten du ospakizun honek Ainara Etxabide Sagarzazu lesakarraren agendan: «Inauteak Ortzegun Gizenarekin hasten ditugu etxean. Arroltze-arroltze egunarekin hasten ditugu, eta Ikastolako meriendarekin bukatzen dugu eguna. Larunbatean segitzen dugu: eguna gogo aunitze-kin hasten dugu eguerditik. Azken urtean, herriko neska gazte kuadrilla bat elkartzen gara, mozorrotu eta besta eder batekin ospatzen dugu eguna. Egun bereziena, igandea da, eguerdiko poteoan mairuz jantzita hasten dugu eguna, Zakuzaharrez jantziko direnekin batera giroa berotzen hasten da. Bazkaria izaten da, ni ez naiz joaten baina kafera beti dugu ohitura joatekoa mairu kuadrilla batek. Jostera joatekoak garena ere talde izaten saiatzen gara. Azkenik, astelehena ere berezia da, ikastolarekin dela edo kuadrillarekin, egun guziko besta ederra izaten da».

Arranoko lan taldean zakuzaharren taldea antolatzen ere aritzen da, ardura eta ilusioa uztartzen dituen zeregina: «Ardura den arren, gogoz eta ilusioz egiten den lana da. Arrano elkarteak duen ardura da, eta ahal bezain hoberen betetzen saiatzen da. Zorionez, aurreko zein eguneko lanetan ere, Arrano elkarteko kide zein herritar oro ere beti laguntzeko prest daude. Urteroko jendea dago baina beti bada laguntzaile berri bat, ilusioz eta gogoz hartzen duguna eta goxatzen saiatzen garena».

Azpiegitura lanak

Inauteetako igandea egun bakarra izaten da, baina hori prestatzeko lanak dezente lehenago hasten direla ere aipatu digu Etxabidek: «Hilabete lehenago hasten da lanean. Ardurak banatzen dira. Materiala lotzen saiatzen da lehenik, batez ere pizontziak dira eskatu behar den lehen gauza eta denboraz, azken

urteetan 150tik gotti eskatu izan dira eta horrek bere lana du». Bertzalde, deialdiak ere noiz egingo diren adostu behar da, normalean hiru aste lehenago egin ohi da bilera. «Bilerak badu garrantzi berezia –dio Ainara Etxabidek–, bertan erabakiak hartzen direlako. Eguna Arrano elkarteak antolatzen duen arren, beti argi izan du erabaki gunea zakuzaharrena dela eta honetarako bilera erabiltzen da. Bileran bertan erabakitzen da zein izanen diren aitzin eta gibel eskuak. Arrano elkarteak, belarra, zakuak eta pizontziak ahalbideratzen dituela azaltzen da, zakuzahar bakoitzak pizontzirako makila, buruko zapia, lastozko zapela, lepoko zapia eta ator kuadro duna eraman behar dituela azaltzen da. Bileran bertan apuntatzen dira zakuzaharrak, baita egunean Arrano ostatuan egiten den bazkarirako apuntatzeko momentua izaten da. Bazkaria, zakuzahar eta Mairuentzako da». Azpiegiturak lana du, «eta gure artean lana banatzen saiatu ohi gara. Zuzendaritzako kideek hartzen dute bere gain lan guztia. Hala ere, beti badago inguruan lan egiten duten jendea. Nik duela bi urte utzi nuen zuzendaritza, baina beti laguntzen segituko dut».

Zakuak, pizontziak, jostunak...

Zakuzahar ateratzeko materialak lortu eta igandeko jostun lanak ere lotu behar dira. Etxabidek dioenez, «materiala lortzeko zailtasunak egon dira urte batzuetan. Pizontzi aunitz behar izaten dira, eta aunitzaren exkax ere gelditzen dira egunean bertan, gero eta parte hartze handiagoa da-

**«INAUTEETAN
GEHIEN GUSTATZEN
ZAIDANA
AUZOLANA DA»**



goelako. Momentu batean, zakuekin ere arazoak izan genituen, betiko materialak aldatzen ari direlako. Haria lortzeko ere urte batzuetan hainbat proba egin izan dira, zakuen materiala exkaxagoa denez, gogor eta tinko kontuko duen hariak lortzea ez da erraza izaten. Urtero ahalik eta material egokiena eta zakuzaharrentzat erosoena lortzen saiatzen gara». Josteko tailerrak ere deitu dituzte azken sei urteotan. «Tailer honetan, zakuak nola josten diren erakutsi izan da. Zaku bakoitza josi behar da, gorputz bakoitzera egokitu behar dira zakuak. Hau da erakusten duguna tailerlean. Egunean bertan, nahi duen mairu oro etortzen da jostera. Gero eta zakuzahar gehiago dira baino gero eta jende gehiago animatzen da jostera ere. Mairuen papera, josteaz gain, zakuzaharrak laguntzea da, betetzen, bidean eta hustutzen. Jende aunitz animatzen da ibilbidean zakuzaharrek behar duten laguntza eskaintzera. Deialdia

luzatzen dugu, aurten ere laguntzeko jendea etor dadila, beti ere Mairuz mozorratua bada hobea».

Urtero mairuz ateria

Ainara Etxabide bera ez da inoiz zakuzahar ateri, «nahiz eta ez dudan ideia bazterten. Hala ere, urtero mairuz ateri izan naiz eta ikaragarri gustatzen zait. Eguneko saltsan parte hartzea da garrantzitsua. Niretzat ez dago zakuzaharrik mairurik gabe, bi pertsonaiak ezinbertzekoak iruditzen zaizkit». Inauteak urteko txar guztiak ahantzi eta disfrutatzeko daudela uste du, «larunbata eta astelehena egun ederrak dira, mozorrotu eta antzerkia egiteko egun politak dira. Hala ere, inauteetako politena niretzat zakuzaharrak dira». Finean inauteetan gehien gustatzen zaiona «auzolana» da, «Herritar aunitz batzen dituen egunak dira. Zakuzaharrak izan, Fraindarrak, Goitarrak edo karrozak izan, taldean besta egiteko egun ederrak dira».

Lesaka
ZUBIAK ERAIKIZ

Øngi pasa inauteriak!

MENU BEREZIA - BOKATAK

PLATER KONBINATUAK

631 837 959 - 948 62 75 12
Beheko plaza, 9 - LESAKA

LÁCAR
CLINICA DENTAL - HORTZ KLINIKA

ONGI PASA (INAUTERIAN)

- Estetika
- Hialuronikoa
- Protesiak
- Endodontziak
- Inplanteak
- Hortz zuritzeak


asegi asesorías
Zergalan

- Kontabilitate zerbitzuak
- Zerbitzu fiskalak
- Lan-aholkularitza
- Aholkularitza juridikoa
- Herentzia eta Testamentuak
- Laneko Arriskuen Prebentziorako Zerbitzua
- Datuen babesa
- Mugaz bertze aldeko aitortpenen kudeaketa (langileak eta enpresak)

www.zergalan.es | zergalan@asegi.es
www.asegi.com

Baztanberri plaza, 6, 31700 ELIZONDO | 948 581 300
Eliza Kalea, 22, 31740 DONEZTEBE | 948 450 395
Eztegara pasealekua, 22-1, 31780 BERA | 948 631 108
Eltzeta, 20, 31770 LESAKA | 948 638 077

DONEZTEBEKO INAUTEAK



LARUNBAT GAUETAN
SEKULAKO GIROA!!!
ONGI PASA INAUTERIAKI!

Merkatarien karrika, 28
31740 DONEZTEBE

Belarra *jatetxea* **ONGI PASA INAUTERIAKI!**



Amezitia zeharkarrika, 3 · 31740 DONEZTEBE
T. 948 450 306 · www.restaurantebelarra.com



Arozena
ostatu · jatetxea

Gosariak
bazkariak
eta afariak
ongi pasa inauteriak!

T. 948 450 443
Leitzako errep., 84 · Doneztebe

EDERKI tailerra



CITRÖEN
ZERBITZU OFIZIALA

'Latigillo' hidraulikoen moldaketa
PEUGEOT MARKAN ESPEZIALISTAK

24 ORDUZ GRUA ZERBITZUA

ongi pasa inauteriak!

Leitzako bidea · DONEZTEBE · 948 450 525

Sampi Aragón S.L.



ONGI PASA INAUTERIAKI!



Mekanika | Elektrizitatea | Txapa | Pintura

T. 948 450 354 | **DONEZTEBE**
sampiaragon@sampiaragon.com

DONEZ TEBEKO INAUTEAK

Egitaraua



Otsailak 27, ortzeguna

20:00etan trikiti poteoa inauteak hasteko. **22:00etan** afaria herriko ostatuan Gazte Burrunbak antolatuta.

Otsailak 28, ortziralea

08:30ean eskea baserriz baserri Titi ostatutik hasita. Gazte Burrunbak antolatuta. **11:00etan** San Miguel eskolako ikasleen karrikabuelta herrian barna. **17:00etan** haurrentzako jokoak eta txokolatea eskolako aterpean Erreka Guraso Elkarteak antolatuta.

Martxoak 1, larunbata

16:30ean Aparanetik hasita mozorroen eta karrozen desfilea.





«Doneztebeko inauteetan beti izaten da erokeria puntu bat»

ASIER AROZENA MARIEZKURRENA DONEZTEBEKO INAUTEZALEA

Inaute zalea denak, odolean darama zerbait berezia, hala dio Asier Arozena Mariezkurren: «afizioa jaiotzetik ekartzen da». Hogeita lau urte ditu eta txikitatik ospatu izan ditu inauteak: «ilusioz hartu izan ditut beti eta urtetik urtera gehiago maite ditut». Gogoan du haurra zenean ere, ilusioz egoten zela inauteen esperoan: «Olenzertzen zen egunean bezalaxe, ilusioz esperoan egoten nintzen eta besta hasten zenean txundituta egoten nintzen zaharragoei begira, ni ere festa horren parte izan eta saltsan ibiltzeko eguna noiz iritsiko ote zen pentsatzen».

Halako batean iritsi zitzaion berari ere aukera eta gustura ibiltzen da «soinua eta zarata nagusi» izaten den giro horretan: «herria handia da, kua-drilla aunitz elkartzen gara eta karrozak eta mozorroak pilaka izaten dira. Gainera, Doneztebeko inauteetan beti izaten da erokeria puntu bat: musika, antzerkia...».

Ortzegunean hasten dira inauteak, baina ortziraleko eskerako gordetzen ditu indarrak Asierrek: «goizeko zortzietan elkartzen gara gazteak ostatuetan. Kafea eta txupittoa hartu eta trikitilaria etortzean bi taldetan banatzen gara baserriz baserri eskean joateko». Baserrietatik bueltan segida izaten du bestak: «kotxeak utzi eta

auzoz auzo kantuan ibiltzen gara». Eskean joateko geroz eta baserri gutxiago zeudela ikusita, herriko auzotarrei parte hartzeko proposamena egin zieten eta erantzun ona izan dute: «azken urteetan gehiagok parte hartu dute eta horrela eguna asko luzatu eta sortzen den giroa askoz politagoa da. Gainera, ortziraleko bazkaria kendu egin zen eta elektrotxaranga bidez arratsaldean egiten da poteoa». Kanpotik jendea ere erakartzen du giro horrek: «larunbateko desfileak eta ortzirale gauak dute indar gehiena, orduan biltzen da kanpotik ere jende gehiena».

Mozorroa izaten da ezinbesteko osagaia eta urtarrilean hasten dira prestaketekin, «Erregeak pasa eta hurrengo astean. Batzuetan mozorroa osorik erosi eta bertzeetan landu egiten dugu». Orain artekoetatik bat aipatzeko eskatutakoan, «Pikoloz, Dragoi Bolako pertsonaiaz» mozorrotu zirenekoa nabarmendu du: «arras gustuko genuen pertsonaia hori eta gainera gure lagun batek desfilean istripua izan zuen eta hori nekez ahaztuko dugu». Aurtengorako zer prestatu duten jakin nahi duenak, Doneztebera hurbildu beharko du: «etortzen dena ongietorria izanena da, baina gogoz etor dadila, gainerakoan kostako baitzaie gure martxa segitzea».

ELIZONDOKO INAUTEAK

BRIKO BAZTAN, SL. *Ongi pasa inauteriak!*

Drogeria · Garbiketa produktuak · Ferretaria
Sukaldeko tresnak · Mozorroak · Papertegia
Kiroleko eta mendiko jantziak · Moda...

T. 608 016 052 San Andres, 66 · NARBARTE

TXOKOTO TABERNA

ANZABAL
INMOBILIARIA
ZURICH ASEGURUAK

www.anzabal.com Santiago, 15 ELIZONDO
+ 34 948 580 804

INTZA TABERNA

BOKATAK
PINTXOAK
RAZIOAK *Ongi pasa inauteriak!*

Mendi ostatua

Eguneko menua · Bokatak
Pintxoak · Razioak · Pizzak

Deitu eta egin erreserba!
Goizeko 8etatik gauerdirarte
T. 948 580 313



Egitaraua

Otsailak 27, ortzeguna

10:00etan kalejira Saskaitz plazatik abiatuta (Santiago karrika, adinekoen egoitza, Jaime Urrutia karrika). **11:00etan** jokoak plazan eta Iriarte frontoian*. **13:00etan** bazkaria. **15:00etan** oilar dantza Iriarte frontoian. **16:30ean** merienda frontoian. **17:00etan** dantzaldia Hauspolariekin frontoian.

Otsailak 28, ortziralea

09:00etan puska biltzea, Andreak eta Aishak trikitixa eta panderetarekin alaitua. **16:00etan** haurren desfilea Ikastolako parketik abiatuta (Ziga plaza, Foruen plaza, zahar etxea, Santiago karrika eta plaza berriz)*. **17:00etan** txokolate beroa plazan, ondotik dantzaldia Kapitan General Djarekin*. **20:00etan** txarangapoteoa Txokototik abiatuta, pintxoak Txokoton, Hirun, Saioan eta Mendin.

Martxoak 1, larunbata

11:30ean organ desfilea eta mozorro lehiaketa, Labaien ostatutik abiatuta (Santiago karrika, plaza). **18:30ean** dantzaldia plazan Kapitan General Djarekin.

*Euria eginez gero, ekitaldi horiek Iriarte frontoian egingen dituzte.



«Etxean ttikitatik maitatu izan ditugu inauteak»

IZASKUN AIZPURU ETXEBERRIA ELIZONDOKO KARGUDUNA



Etxean «intentsitate haundiarekin» bizi izan ditu beti inauteak Izaskun Aizpuru elizondoa, «hortaz, ahizpak eta biok izugarri gustuko dugu mozorrotzea. Amatziren oroitzen bereziki goxoak ditut, ttikit mozorroak egiten zizkigunean eta guk ahal genuenarekin laguntzen geniorarik».

Azaldu duenez, «Elizondon ez ditugu inauteak herri ttikitian bezala bizitzen, baina egun bereziak dira, adin eta kuadrilla guzietako herritarrik ateratzen baikara karriketara». Ortziralea da gehien gustuko duen eguna, «berriki arte danborrada izan ohi zena eta gaur egun pintxo poteoa; musika, lagunak, pintxoak eta zerbezaren bat edo bertze. Inauteak hasteko modu ederra!».

Baina larunbateko desfilean ere ez du hutsik egiten, eta horretarako, «etxean egindako mozorroak nahigo ditut, dudarik gabe. Mozorroa aukeratutako gaiari ahalik eta gehien iruditzea gustatzen zait, eta erosita-koek aunitzetan ez dute hori betetzen». Kuadrillarekin batera ateratzen da, «eta urtero guk egiten ditugu mozorroak. Horietako bat aukeratzekotan, Disneyko gaiztoez mozorrotu ginen urtea aukeratu nuke. 4-5 urtez proposatu nien lagunei ideia eta azkenean, milagro edo, baietz erran zidaten. Hilabete batez lanean aritu ginen orratzarekin eta silikona pistolarekin, baina emaitzak

merezi izan zuen. Haurrak emozio-natuak bezain beldurtuak zeuden gu ikustean eta ederki pasa genuen gaiztakerietan».

Joan den urtean taldekako mozorro lehiaketa irabazi zuten, Cristina Pedrocheren Urtezaharreko soinekoak jantzita. «Hilabete inguru pasatu genuen mozorroan lanean, baina egia erran, ez genuen irabaztea espero, mozorro arras originalak izaten baitira beti». Hala ere, «sariaren dirua Errege Kabalgatako komisioari eman genion, eta horrekin urtero elizan zintzilikatzen den telegrama berritu dute. Azken finean, herriak egiten du herria».

Aurten ama bezala biziko ditugu inauteak lehenbizikoz, baina, «zorionez, senarrak ere mozorrotzea gustuko du eta familian aterako gara. Dena pentsatua dugu dagoeneko!».

Antolaketa lanetan

2023ko udan hasi zen kargudun lanetan herriko taldean; «Aitor Bazterrikak bizpahiru aldiz proposatu zidan eta, lantaldea ikusita, sartzea erabaki nuen. Erabaki ona izan zela erranen nuke. Aurten ere lantalde polita sortu dugu, adin eta izaera anitzekoa, eta giro ona dugu».

Izan ere, «herritarren parte hartzea ezinbertzekoa da herria bizirik mantentzeko, ospakizunak gozatzerako orduan, baina baita antolaketan ere. Herriarendako egiten den guziak lan handia du gibeletik, aunitzetan konturatzen ez bagara ere. Gustura eskaintzen diogu gure denbora, baina herritarren parte hartzea aunitz eskertzen dugu. Hortaz, elizondorrik batzarretara etortzera animatzen ditugu beti, herriaren ahotsa aditzeko tokia baita hori».

Inauteei eta Orakunderi dagokienez, urte hasmentan abiatzen dituzte prestaketak; «bilerak eskolekin, lanen banaketak, jatetxeen erreserbak... ia dena prest dugu».

Ongi pasa inauteriak!

ESKISAROI

J A T E T X E A

Elizondo / T 948 580 013 / www.eskisaroi.eus

Goizalde ostatua

Ongi pasa inauteriak!!

- Pinbroak
- Eguneko menua
- Karta
- Plater konbinatuak
- Ogitartekoak
- Entsaladak
- Hamburgesak
- Errazioak

Jaime Urrutia 8 - ELIZONDO - Tel.: +34 948 58 13 34 - goizaldeostatua.com

PROFESIONALAK
KALITATE-BERMEA
IRISGARRITASUNA
MANTENTZE
LANAK

suteia-zaldain

instalazioak

IGOGAILUAK

+20
Urteko
esperientzia

Santiago, 71 | ELIZONDO
T. 948 580 166 | M 619 424 999
suteia@suteiazaldain.com

1 KANPOKO IGOGAILUAK



Kanpoko fatxadan guztiz integratuak. Portal barrutik sarbidea. Inpaktu eta eragozpen minimoak. Mugikortasun arazoak dituzten pertsonentzako sarbidea.

2 BARRUKO IGOGAILUAK

Eskailerako tartean integratuak. Sarbidea portal barrutik, inongo oztoporik gabe. Mugikortasun arazoak dituzten eta gurgil-aulkian daudenentzako egokitua.



3 IRISGARRITASUNA

Mugikortasun arazoak dituzten eta gurgil-aulkian daudenentzako portalerako sarbidea egokitzen dugu. Azkar egiten ditugu lanak, eragozpen minimoak sortuz.



EZ ZAITEZTE KEZKATU!

Gu arduratuko gara proiektu osoa landu, obra baimenak tramitatu, diru-laguntzen eskaerak egin eta gremioak koordinatzeaz.

URDAZUBIKO INAUTEAK

VENTA
ZUBIONDOA
Ostatua, supermerkatua, denda

Landibar, 7 Urdazubi • Tel. 948 599 041
www.zubiondoa.com • zubiondoasa@gmail.com

 **Pinturas**
Iñaki Alzuyet
margoak

Tel: (0034) 659 862 417
31711 URDAZUBI (Na)

ONGI PASA!

- ⇒ Fatxaden zaharbertitza
- ⇒ Barne-dekorazioa
- ⇒ Isolamenduak pladurrean
- ⇒ Pintura industriala
- ⇒ Egurra eta altzarien lakatze eta bernizatzea kabinan

pinturasalzuyet@gmail.com

URDAZUBIKO UDALA



Urdazubiko Udalak inauteri zorionsuak opa dizkizue urdazubiar eta bisitari guztiei!



Egitaraua

Martxoak 2, igandea

09:00etan herriko gazteek kafea hartuko dute Karretero ostatuan eta etxez etxe ibiliko dira, musikaz alaituak. **09:30ean** gaztetxoek elkartu eta etxez etxe ibiliko dira, musikaz alaituak. **21:30ean** pintxoak eta musika denendako Karretero ostatuan.

Martxoak 3, astelehena

09:00etan gazteak elkartu eta etxez etxe ibiliko dira, musikaz alaituak.

09:30ean gaztetxoek elkartu eta etxez etxe ibiliko dira, musikaz alaituak. **21:30ean** pintxoak eta musika denendako Karretero ostatuan.

Martxoak 4, asteartea

10:00etan herriko gazteak Dantxarinean elkartu eta bentaz benta ibiliko dira, musikaz alaituak. **15:00etan** pintxoak eta musika denendako. **Ondotik** haurrendako txokolate beroa eta sorpresa izanen dira Karretero ostatuan.



«Belaunaldiak aldatzen diren bezala, moldatu behar dira ohiturak»

MARIJO ETXEBERRIA BENGOTXEA URDAZUBIKO INAUTEZALEA



35 urteko neska «bestazale eta saltsero samarra» da Marijo Etxeberria urdazubiarra. Gaur egun herritik kanpo bizi bada ere, ez du hutsik egiten Urdazubiko inauteetan; «betitik gustatu izan zaizkit eta ilusio haundiarekin bizitzen ditut. Hiru egun intentso izaten dira, ordu aunitz lagun artean, musikarekin, dantzan, irriak... sortzen den giroa berezia da, eta xarma berezia dute niretako».

Ttikitako inauteen oroitzen onak ditu; «eskolan ortziralarekin egiten genuen gure besta. Orduan jantokirik ez zenez, etxetik prestatutako gauzak eramaten genituen eta lagun artean bazkaltzen genuen. Gero, aitzineko asteetan geronek egindako mozorroak jantzi eta herrira joaten ginen, eta han musika eta txokolata beroa izaten genituen». Bestak asteburuan izaten zuen segida; «igande arratsaldean herriko ostatura jausten ginen mozorrotuak, eta gazteak ailegatzean musikarekin dantzan aritzen ginen».

Horrez gain, Urdazubin haurrak ere etxez etxe eskean ibiltzen dira, «eta ni ere hala ibilia naiz. Bederatzi urterekin ttikien taldean hasi nintzen eta 16 urtetan gazteen taldean sartu nintzen».

Ohiturak eguneratuz

Azaldu duenez, denborarekin «aldaketak izan dira, eta izanen dira. Beharrezkoak baitira ohiturek bizirik segi

dezaten. Adibidez, orain dela aunitz urte, mutikoak bakarrik ibiltzen ziren eskean. Urte batez herriko neskek ere eskean hasi ziren, eta haiek egindako bideagatik, ondorengo neskek ere eskean ibiltzeko aukera izan dugu». Horrez gain, «lehen, ezkondu ondotik, ezin zen eskean parte hartu, eta hori ere azkeneko urteetan aldatu den zerbait da».

«Bertze aldaketak» ere izan dituzte inauteetan; «hiru egunetako ibilbide eta egitaraua ere desberdina da orain, asteartea arrunt apal gelditzen zela ikusi baitzen. Belaunaldiak aldatzen diren bezala, ohiturak ere moldatu behar direla pentsatzen dut, bertzela galduko baitira».

Herrikoak beti bereziago

Herritik kanpo bizitzea ez da aitzakia Etxeberriarentzat, Urdazubiko inauteak «egutegian ongi seinalatuak» baititu; «ahal dudan guzua egiten dut lanean eta etxean opor hartzeko eta inauteetara joateko. Oraingoz eskean ibiltzeko lagunak hor ditut eta gustura ateratzen naiz».

Aitortu duenez, «nire adintsukoak falta ditudan egunean lekuz kanpo sentituko naizela pentsatzen dut, eta orduan izanen da uzteko momentua». Hala ere, «inauteen seinalea bertze modu batean egiten segitzea gustatuko litzaidake. Egia da gure herrian gehienbat gazteei lotutako besta dela, eskean ibiltzen ez





DANTXARINEA

www.josenea.es | +34 948 599 236




**KALITATEKO MANTENTZE-LANAK
PREZIORIK ONENEAN**

-  Garbiketa-zentroa
-  Gasolindegia
-  Auto-garbitegi automatikoa
-  Tailer mekanikoa

**ZIGARRO
PURUEN CAVA**



DANTXARINEA (Urdazubi)
T. 948 599 018
arrechea.estanco@gmail.com

SANTIAGO VILLARES S.L.
Ongi pasa inauteriak!



LUZERNA-PENTSU ETA FORRAJEAREN
SALMENTA ETA ESPORTAZIOA
LASTOA
LUZERNA

Móvil (Santiago Villares): 609 415 777
T. (0034) 948 59 91 34
Fax. 948 59 91 56

info@santogvillares.com
www.santogvillares.com



Montxo
JATETXEA • ERRETEGIA

Tradizioa, historia
eta gastronomia

asadormontxo.com




Axular karrika, 12
31711 Urdazubi-Urdax (NAFARROA)
+34 848 85 00 21
info@asadormontxo.com

direnendako ez baitago ekitaldi berezirik. Baina horri buelta eman nahiko nioke, herritar guziak bestan parte hartzera anima daitezen».

Izan ere, «sortzen den giroa, denok elkarrekin egotea, musika, dantza, kantua, egoera irrimangarriak... besta bereziak dira inauteak. Urte guzian ikusten ez dituzun pertsonekin egoteko aukera ematen dute, gehienbat etxeetako adineko jendea. Aitaxi amatxiekin mintzatzea, beraiei gazteen berri ematea, kantu zaharrak kantatzea... aski giro polita sortzen da, irri aunitz egiten ditugu eta alaitasuna nabaria izaten da».

Bereziki nahiago duen jarduerarik ez badu ere, argi du «etxe etxeko eskea Dantxarineko bentetan ibiltzen gareneko bano gehiago gustatzen zaidala. Etxe bakoitzak bere berezitasuna du eta hango jendearikin dugun hurbiltasuna politagoa da». Egun bat aukeratzekotan, berriz, «lehenbizikoa. Jendea fresko eta gogorekin egoten da. Egunak pasa ahala nekea nabaritzen hasten da».

Mozorroak ere inautearen parte haundia dira, hortaz, azken urteetan gai bat aukeratzeko dute herritar guziak mozorrotzeko. «Denetik ikusten da, beti bada norbait bere mozorroari originaltasun bereziren bat ematen diona». Etxeberriari dagokionez, «ez naiz sormen haundikoa eta etxean ditudan jantziekin gaiarekin lotura duen zerbait sortu eta horrekin ateratzen naiz». Duela bi urte 'baserria' izan zuten mozorroen gaia, «eta aunitz gustatu zitzaidan urte hori. Aitaxi-amatxiren arropak berreskuratu eta horiekin mozorrotu nintzen».

Inauteak bizitzeko hamaika modu

Bi haurren ama da Etxeberria, baina, guraso izanagatik, «ez dut desberdintasun haundirik sumatu Urdazubin ateratzean. Herrian biziko banintz, haurrek ere parte hartze haundiagoa izanen lukete eta orduan inauteetako egunen antolaketa desberdina izanen litzateke. Egia da, nahiz eta guttitan faltatu, huts egin ditudan urteak haurrak ttikiak zirelako izan direla».

Hala ere, «inauteak haurrekin bizitzea ere aski polita da: mozorroak prestatu, eskean pasako diren gazteendako jatekoa egitea, gazteek zirikatzen dituztelako sentitzen dituzten nerbio eta beldur horiek...



haurrei Urdazubiko ohiturak erakusten saiatzen naiz, eta aunitz gustatuko litzaidake, adina ailegatzean, beraiek ere Urdazubiko inauteetan parte hartzea».

Horrez gain, musikari gisa ere atara da herrian; «trikitixa eta pande-reta jo izan dut Jaionerekin batera gazteen taldean. Erranen nuke 6-7 urtez aritu ginela, eta hor ere gustura ibiltzen ginen. Polita da egiten duzunarekin inguruko jendea disfrutatzen ikustea». Hala ere, «ardura pixka bat gehiago ere izaten da; musikariak bertzeekin batera gaude, alkohola tarteko, eta kontrol pixka bat ez baduzu, kasu!».

Baina, «dudarik gabe, musikak garrantzia haundia du edozein bes-tetan eta are gehiago inauteetan. Ez ditut musikaririk gabeko inaute batzuk imajinatzen; sortzen duen saltsa, jendea zirikatze modua... joko haundia ematen du, eta momentuak aunitz aberasten ditu. Musikariek alimaleko lana egiten dute jendea animatu eta giroa sortzen».

Azkenik, «eskerrak eman nahi nizkieke etxeko atea irekitzen diguten guziei. Beraien borondaterik gabe, ohitura galduko zelako. Aldi berean, aunitzetan eskean berandu ibiltzen garelako, barkamena. Saiatzen gara tenorez ibiltzen baina...».

**«INAUTEAK
HAURREKIN
BIZITZEA ERE ASKI
POLITA DA»**

GOIZUETAKO INAUTEAK



Egitaraua

Martxoak 2, igandea

17:00etan gaztetxoan zahagi dantza. 19:00etan musika plazan. 21:30ean mozorroen afaria.

Martxoak 3, astelehena

08:00etan mozorroen irteera base-rietara. 10:00etan plaza apainketa (eguraldi txarra bada, frontoian). 11:30ean konpartsa herrian (eguraldi txarra bada, frontoian). 13:30ean umeen bazkaria. **Ondoren**, haurrentzako filma. 17:00etan txokolate jatea. 18:00etan musika plazan. 20:00ak aldera mozorroen etorrera

dultzaineroekin. 22:00etan mozorroen afaria.

Martxoak 4, asteartea

09:00etan mozorroen gosaria. 10:00etan mozorroen irteera herrian. 14.00etan mozorroen bazkaria. 17:00etan zahari dantza Motzanetik hasita. 22:00etan mozorroen afaria.

Martxoak 8, larunbata

12:00etan mozorroen poteoa Igandea txarangak alaiturik. 14:30ean mozorroen bazkaria. 17:30ean Igandea txaranga.



Oxeguarda
ostatua

Ongi pasa inauteriak!



T. 948 514 019 • Nagusia, 34 • GOIZUETA

Pintxok
Raziak
Bokatak
Platerak
Terraza
Fiesta
948 514 327
Goizueta

Deitu erreserba egiteko eta gozatu herrian bertan!

ZUBIMUXU aterpea
albergue de Goizueta

www.zubimuxu.com • Herriko plazan 663 85 85 02
Sukalde erabilgarria - 30 plaza - 2, 6 eta 10 laguneko gelak - Literak

IZKIÑA
jatetxea

Pintxoak,
bazkariak eta
afariak

Etorri GOIZUETAKO fauna ezagutzera!!
Tel. 948 514 102 • GOIZUETA

AMAI

OKINDEGIA
GOZOTEGIA

ONGI PASA INAUTERIAK!

bai
euskarari
zerbitzua
euskaraz

K. Nagusia • GOIZUETA • 948 514 242